

# ESKOLA TXIKIEN ekarpenaren handitasuna

2009ko azaroaren 25ean  
17:30etatik 20:00ak arte  
ESKORIATZA > HUHEZIKO aretoa

## EGITARAUA

**17:30-17:45** Nora Salbotx: Sarrera.

**17:45-18:15** Xabier Ballarena: Herrietako eskolak: koordinaketa adibide bat.

**18:15-19:15** Elena Laiz: Ibilaldia gure metodologian barrena.

**19:15-19:45** Mahai ingurua: Herrietako eskolak; atzo, gaur, bihar.

Nora Salbotx    Xabier Ballarena  
Elena Laiz     Lorea Agirre

**20:00-20:30** Luncha.



ANTOLATZAILEA:  
JAKINGARRIAK ALDIZKARIA

---

Lagun hori,

*Jakingarriak* aldizkariaren 64. alean, landa-eremuko eskolen gaia jorratu genuen. Gai horretan sakondu nahian, jardunaldi batzuk antolatzea erabaki dugu HUHEZI Fakultatean. Orduan eta orain, asmo argia geneukan eta dugu: hainbat zertzelada orokor gerturatzea hain gutxi jorratu den eskola eredu honen inguruan.

Aztergai izango dugun eskola eredu honek izen asko hartu arren (eskola osagabea, landa eremukoa, eskola txikia, adin askotarikoentzako eskola, eskola unitarioa...), itxuran ez da hain ezberdina.

Eskola txikiko geletan, gainontzeko giza taldeetan bezala, aniztasuna da protagonista. Bertan elkartzen dira hainbat adineko haurrak, behar edota premia ezberdinak dituztenak, bestelako nortasun ezaugarriak dituztenak, askotariko interesak azaltzen dituztenak, garapen fase desberdinetan kokatzen direnak, bestelako jatorriak edota ama hizkuntzak dituzten umeak...

Horrek guztiak eramaten ditu eskola txikiko irakasleak benetako **pedagogia berritzaile eta iraultzailea** abian jartzera. Gure aburuz, eskola txikien errealitatea eredugarri izan daiteke hainbat alorretan eskola handientzat.

Hori dela eta, **"ESKOLA TXIKIEN EKARPENAREN HANDITASUNA"** izena duen jardunaldian, eskola txikiko errealitatearen partaide direnen iritziak, gogoetak eta proposamenak jasoko ditugu. Nahiz eta ordezkari guztiak ezin izango ditugun bildu, parte hartuko dutenak, gure ustez, nahitaez egon beharrekoak dira.

Honenbestez, Jardunaldietara gonbidatzen zaitugu: guztion erronka den pedagogia berritzaile eta iraultzailearen inguruan konpartitu ditzagun ahalegina, zalantza eta jakintza.

Begirunez agurtzen zaitugu

Elena Lopez de Arana

eta Nerea Alzola

***Jakingarriak***

HUHEZI